

Duela 430.000 urteko hilketa batek Atapuercako misterioetako bat argitzen lagundu du

Atapuercako Hezurren Osineko garezur bati esker, aztarnategiko gorputzetaren jatorria argitzeko aukera izan dute ikertzaileek. Hain zuzen ere, duela 430.000 urteko 28 gorpuen aztarnak aurkitu zituzten arkeologoek Hezurren Osinean, eta ez zekiten metaketa hori nahita edo halabeharrez gertatu ote zen. Orain, hango garezur bat ikertuta, ikusi dute banako hori nahita hil zutela, eta gero bota zutela osinera. Hortaz, badirudi Hezurren Osineko metaketa ez zela istripuz gertatu, baizik eta nahita.

Ikertu duten garezur hori 17. burezurraren da, eta indusketaren hogeitertan (1990-2010) jasotako 52 zatik osatzen dute. Gizonezko gazte batena da, eta bi zulo ditu kopetan, ezkerreko begiaren gainean.


Teknika forentseak erabilia, frogatu dute bi zuloak objektu berberarekin eta angelu desberdinekin emandako bi kolperen bidez egin zituela norbaitek. Alegia, hilketa bat izan zen, kolpeak ez ziren istripuz gertatu. Ikertzaileen oharraren arabera, "gizateriaren historian ezagutzen den lehen erailketa-kasua" izango litzateke.

Ikertzaileek ondorioztatu dute hil ondoren beste gizaki batzuk eraman zutela Hezurren Osinera, eta horrek iradokitzen du nahita metatu zituztela leku hartan gerora topatu diren gorpuk.

Giza Eboluzio eta Portaerari buruzko UCM-ISCI Zentro Mistoko Nohemi Salak zuzendu du ikerketa, eta EHUko Estratigrafia eta Paleontologia Sailean Ikerbasqueko ikertzaile dabilen Asier Gómez Olivencia izan da parte-hartzaileetako bat. Artikulua, berriz, [PLOS ONE aldizkarian argitaratu dute](#).



17. burezurraren. ARG.: JAVIER TRUEBA/MADRID SCIENTIFIC FILMS.



Burezurreko bi zuloak eta inpaktuen nondik norakoak erakusten dituen irudia. ARG.: SALA ET AL.

Epilepsiak neurona berrien sorkuntza murrizten du

Epilepsiak neurona berriak sortzea oztopatzen duela frogatu dute [Achucarro](#) neurozientzien ikerketarako euskal ikerketa-zentroko ikertzaileek. Saguetan ikusi dute, epilepsiak eragiten duen hiperaktivitate neuronalaren ondorioz, hipokanpoko zelula ama neuralek neurona berriak sortzeari uzten diotela. [Cell Stem Cell aldizkarian argitaratu dute lana](#).

Ugaztun gehienek garunean hipokanpoko zelula ama neuralek neurona berriak sortzen

jarraitzen dute, helduaroan ere. Neurona berri horiek garuneko neurona-sarearen parte bihurtzen dira, eta neurona-sarea berritzen eta aldatzen joateko gaitasun hori garrantzitsua da memoria- sorkuntzarako eta ikasketarako.

Baina, neuronez gain, zelula ama neuralek beste zelula mota batzuk ere sortzaketete. Hain zuzen ere, Juan Manuel Encinas ikerketaren arduradunak nabarmendu duenez, "aurkikuntza honi es-

ker, hobeto ezagutzen dugu zelula ama neuralen funtzionamendua. Neurona berriak eta astrozitoak sortzeaz gain, krisi epileptiko baten ondoren, hipokanpoko zelula ama neuralek astrozito errektiboak sor ditzaketela frogatu dugu".

Horrek zelula ama neuralen populazioa agortzea eragiten du, eta, ondorioz, neurona berriak sortzeko gaitasuna galtzen da. Gainera, astrozito errektibo horiek hantura eragiten dute eta neuronon

arteko komunikazioa asaldatzen dute.

Ikertzaileen ustez, aurkikuntza hau garrantzitsua izan liteke epilepsia eragiten duen terapiari buruzko ikerketarako. "Zelula ama neuralen populazioa mantentzea eta neurona berriak sortzeko duten gaitasuna babestea lortzen baldin badugu, beharbada, epilepsia atxikitako zenbait sintomaren garapena prebenitu ahal izango litzateke, eta hipokanpoan gertatu ohi den kaltea arindu", adierazi du Encinasek.